



**ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA**
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2021-EKO PRIMADERAKO HIRUHILABETEKARIA

**BULLETIN TRIMESTRIEL DU
PRINTEMPS 2021**

KOMUNIKAZIOA: LOGO BERRI BAT

Plazer handi batekin Ortzaizeko Herriko etxearen logo berria aurkezten dautzuegu. Gure helburua ez da Ortzaizeko armariaren ordezkatzeta. Webgunearen eraikitzen hasi girelarik irudi berri baten beharra senditu dugu. Ortzaiztar grafista den Ximun Iñarrak du lan hori eraman. Proposamen horrekin Ortzaizeko armarrarian diren bi elementu nagusiak berriz agertarazi izan nahi ditu: arranoa eta mendiak. Beraz logo hori atxemaiten ahalko duzue Herriko etxearen komunikazio euskarrietan.



COMMUNICATION: UN NOUVEAU LOGO

Nous sommes ravis de vous présenter le nouveau logo de la mairie d'Ossès. Il n'a pas pour but de remplacer le blason du village. Nous avons fait le choix de créer ce logo en construisant le site internet. Nous avons confié cette mission à Ximun Iñarra, graphiste du village. Avec cette proposition, il a souhaité mettre en lumière les deux éléments constituant le blason : l'aigle et les montagnes. Vous trouverez ce logo sur tous nos outils de communication.

GARAPEN IRAUNKORRA / DÉVELOPPEMENT DURABLE

Elektrika kontsumoaren apaltzeko, gaueko argi publikoa goizez berantago pizten da 6etatik - 7:30ak arte eta arratsez gutiago bizirik atxikitzen da 11k arte.

Bestalde, erreka garbitze egun batera gomitatzen zaituztegu **maiatzaren 24ean 9etan, mendekoste astelehenez**. Hitzordua herriko plazan izanen da. Nahi ginituzke Laka bazterrak garbitu Sabiotik Gaharduraino.

Afin de réduire la consommation électrique, la durée de l'éclairage public a été réduite le matin de 6h à 7h30 et le soir jusqu'à 23h.

Par ailleurs, nous organisons une journée participative **le lundi de Pentecôte, 24 mai**. Nous vous donnons rendez-vous à la place à 9h. L'objectif est de nettoyer les abords du Laka de Sabio à Gahardu.

ZUNTZ OPTIKOA / LA FIBRE OPTIQUE

Herritar frangok galderak dituzte zuntz optikoaren hedatzeari buruz. TDH 64 enpresaren gain da herri guzira helaraztea zuntza. Zuen galdera ezberdiner erantzuteko gisan, internet gune bat sortu dute herritarrentzat: <http://thd64.fr/>. Huntan xehetasun frango atxemanen duzue. Ortzaizeri behatuz, zuntzaren hedatzea urte bat huntan hasia da herrian. Etxe ainitzetara harien bidez heldu baita, jabe bakotxaren gain da inguruetakozuhaitzen abar jenagarrien moztea. Beleztegi auzoko etxe guzietan, behar diren guziak eginak dira fibraren eskuratzeko. Hemendik eta 2023ra berantenez, Ortzaizeko beste etxe guzietara ere helarazia izanen da. Ikusten dituzuen bitxikeria edo arazo guziak jakinarazi beharko dituzue Herriko etxeari.

De nombreux villageois se posent des questions sur le déploiement de la fibre sur la commune. L'entreprise TDH 64 est en charge du déploiement de celle-ci. Afin de répondre à toutes les questions, il a été mis en place un site internet destiné aux habitants : <http://thd64.fr/>

En ce qui concerne Ossès : Le déploiement sur la commune a débuté il y a plus d'un an. De nombreux foyers sont desservis en filaire grâce aux poteaux téléphoniques. Chaque propriétaire se doit d'élaguer les arbres sur le passage des fils. Le quartier Beleztegi est d'ores et déjà éligible. D'ici 2023, 100% des foyers d'Ossès le seront. Toutes les anomalies seront à faire remonter à la Mairie.

EUSKARA

Herriko etxeak herrian euskarari merexi duen lekuaren emaiteko lan-talde bat sortu nahi du. Komunikazio eta dokumentu ofizialen itzultzeaz gain, taldearen lan ildo bat izanen da Hizkuntza guttituen xartaren lantzea, inguruko herrietako laguntzarekin. Horren ondotik, helburu eta proiektuak elgarrekin finkatzekoak izanen dira. Lan-talde hori herritarrei ideki nahi dugunez, interesatu guziak harremanetan sar zaitezketegurekin.

LA LANGUE BASQUE

Nous souhaitons créer une commission pour que l'euskara ait la place qu'elle mérite au village. Au-delà de la traduction des documents officiels et d'une communication bilingue, le groupe de travail étudiera la Charte des langues minoritaires avec l'aide des communes environnantes. Ensuite, les objectifs et projets seront à fixer ensemble. Nous voulons ouvrir cette commission à tous les villageois : nous invitons donc tous les intéressés à entrer en contact avec nous .

L'ÉGLISE

LES TRAVAUX

La première tranche des travaux de cinq mois arrive à son terme fin mai. Les délais sont respectés. La toiture est en cours de finition, la grue sera donc démontée fin avril.


Début mai, l'échafaudage sera mis en place jusqu'en haut du clocher afin de permettre de changer l'ardoise.

En même temps, les plateaux de la façade seront montés afin de permettre les travaux de maçonnerie d'hydrogommage des pierres et de jointure.

Une fois la façade terminée, l'église pourrait être ré-ouverte courant juillet mais le cimetière sera encore fermé jusqu'à fin novembre.

La réalisation et le démontage de la charpente, opérations les plus délicates, ont été réalisés avec succès par les charpentiers Lanberry, Trounday Anaiak et Etcheverria. Félicitations à eux d'avoir relevé ce défi pour faire cette belle charpente.

Si vous souhaitez soutenir ce projet, vous pouvez encore le faire sur le site de la Fondation du Patrimoine jusqu'au 30 juin ou en venant directement à la mairie.



LE FILM

Dans le cadre du cycle "Ezkilaren taupadan", nous débuterons un nouveau projet en mai. Il s'agit de réaliser un film participatif visant à récolter les témoignages des villageois sur l'église. Nous avons fait un partenariat avec Kanaldude et nous avons proposé à toutes les associations de la commune de participer à ce projet. Le groupe meneur suivra une formation pour apprendre à utiliser la caméra et travaillera à la réflexion sur le scénario du film. Nous vous faisons donc savoir que, dans les prochains mois, nous circulerons dans la commune pour filmer et que nous irons à la rencontre de villageois pour récolter les témoignages. Si vous êtes intéressés par participer au projet, pour le travail de réflexion, pour filmer, pour le montage ou pour donner votre témoignage, n'hésitez pas à entrer en contact avec nous.

ELIZA

OBRAK

Obren lehen partea maiatzaren hondarrean bururatuko da. Hastapeneko epea errespetatua izan da.

Garabia desmuntatua izanen da apirilaren bukaeran zureria bukatzekotan baita. Maiatzean, aldami bat ezarria izanen da ezkil dorre gaina arte. Horri esker, teilatuaren arbela aldatua izanen da.



Aldamioak muntatzen ari dira eliza aitzinean harginek, harri garbitze eta juntaketa lanak egin ditzaten. Uztailean eliza aitzina bukatua izanen delarik, eliza berriz idekitzen ahalko dugu. Hilerria aldiz, azaro bukaera arte zerratua egonen da.

Lanberry, Trounday anaiak eta Etcheverria zurgin enpresek zureria osoaren desmuntaketa eta eraikuntza lortu dute. Eskerrak horier desafio hau bururaino eta hain untsa eremanik !

Oroitarazten dautzuegu proiektu eder hori sustengatzen ahal duzuela ekainaren 30a arte Fondation du patrimoine webgunean edo Herriko etxerat jinez zuzenki.

FILMA

Ezkilaren taupadan ondare zikloan, proiektu berri bat hasiko dugu maiatzean. Hau da filma parte hartzaile baten sortzea, herritarren elizari buruzko lekukotasunak bilduz. Kanalduderekin partaidetza bat egin dugu eta deia zabaldu dugu herriko elkarteei proiektu horretan parte hartzeko. Kamera erabiltzeko formakuntza bat segituko du eramaile taldeak, baita gogoeta lana eramanen filma horren muntatzeko. Jakinarazten dizuegu beraz herrian ibiliko girela ondoko hilabeteetan filmaketa egiten, baita herritar zenbaitengana joanen girela lekukotasunen bila. Interesatua baldin bazira proiektu horretan parte hartzeko, gogoetan, filmaketan, muntaketan edo zure lekukotasuna eman nahi baduzu filma horretan agertuz, ez duda gurekin kontaktuan jartzea.